

**PATXI ALTUNA JAUNAREN
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

PATXI ALTUNA JAUNAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Luziano Lazkano

Azpeitiko Alkate jauna

Azpeitia, 1981-I-24

Ahaldun nagusi, euskaltzain ospetsu, azpeitiar eta erbesteko, jaun-andre guztioi nire eta gure Azpeitiko herriaren agurrik beroena eta gure ongi nahia.

Ez da erreza, gu bezelako batentzat, hain jende ospetsu eta jakintsuen aurrean hitz egitea, eta halako “konplejo” edo lotsa nabaritzea bidezko deritzat, une honetan nik sentitzen dudana bezela.

Hala ere, ezin naiteke ixilik egon, hemen, Azpeitian, gaur ospatzen dugun gertakizun honetan. Labur hitz egingo dut eta ondoren ni baino hizlari hobeagoak eta argiagoak hitz egingo digute.

Azpeitiko herriak ez du lehenbizikoa gaur ospatzen duen gertakizun berezi hau. Orain dela 55 urte beste azpeitiar jakintsu eta aipagarri bati eskaini zion Azpeitiko herriak omenaldi berezia, bere Euskaltzaindiko sarrera zuela-ta. Karmelo Etxegarai genuen, hain zuzen, gure herritar ospetsu hura.

Orain, 55 urtetara, beste azpeitiar zintzo, langile eta jakintsu bat iritsi zaigu Euskaltzaindiaren ateetara eta gaur berari gure ongi-etorria, gure omenaldia eta gure zorionik beroena.

Nik bezain ondo edo hobetoago dakizue gure Patxi Altuna “kanpaxaren” berri. Hementxe jaio zen, hemendik 20 bat metrotara, bere lehenbiziko pausoak gure herriaren barne-barnean eman zituen, bere lehenbiziko euskal-giroa, hementxe. Iturri txiki eta Elizkale artean tzastatu zituan. Eta hor, Iturri txiki eta Eliz-kale artean Azpeitiko herriak bere barnean erein zion hazia, gaur zuhaitz bikain eta aletsu bat heldu da. Hure Patxi Altuna, bere lanarekin, bere izardi eta nekeekin, bere buru hauste eta ahalegin guztiarekin batera Azpeitiko herriak bere barnean erein zuen hazi haren ondorioa da. Bere ahalegin guztiarekin batera, Azpeitiko herriaren fruitua da. Eta horregatik, gaur berari aho batez “zorionak” diogunean, gure herriari ere, era berean, “zorionak” esan beharrean gara.

Azpeitiko herriak, gaur pozik eta alai, eta zergatik ez?, harro ere, sentitzeko eskubidea ba du, bere seme jator bat Euskaltzaindiko maila haundi honetara iritsi delako.

Gaur-egun, sekula baino beharrezkoagoak ditugu era honetako gizonak. Gaurko momentu historiko honetan, Euskal Herriaren nortasuna eta ondorena hain gogor jokatzeko ari garen une historiko honetan, euskara nortasun honen sustrai eta oinarri izanik, euskal-arlo honetan, Patxi Altuna bezelako gizon asko behar ditugu: euskarari bere lekua emateko, eta euskararekin Euskadi egiteko.

Poz eta zorion gaitzen, baina aldi berean denok ahalegin guztiekin saia gaitzen gure herrietatik horrelako gizonak sarriago eta ugariago irten daitezkoen. Bakoitzak bere mailan, bakoitzak bere ahalmen eta argien arabera, euskarari eta Euskal Herriari ezertxo ete ukatu gaberik.

‘Ez dezagula beste 55 urte zain egon beharrik izan Azpeitian, horrelako gertakizun bat ospatzeko. Urte gutxi barru, berriro ere, Azpeitiko semeak ikusi eta txalo ditzagun Euskaltzaindian sartzean, eta hau honela izan dadin, denon artean behar den giroa sortzen saia gaitzen.

Zorionak, bada, herriko seme Patxi Altuna jaunari, eta zorionak baita ere bere herri Azpeitia osoari. Zorionak, baina baita, eskerrak ere Patxi Altunari, bere lana, Jakinduria eta bere distira bereziarekin Azpeitiko herria goraltzen duelako, Azpeitiko herriaren izena oso goian daramalako, jaiotzetikako Azpeitiko herriari zor ziona, oso ugari ordaindu diolako. Zorionak eta eskerrak Patxi Altuna jaunari.

Eta gainontzekoei, hemen inguruan bildu zareten guztioi, gure ongietorri xamurrekin batera, gure eskerrik beroenak. Eskerrik asko.

PATXI ALTUNA AITAREN EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Azpeitia, 1981-I-24

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren Hitzak

Luziano Lazkano, Azpeitiko Alkatea,
Erramun Labaien, Kultur Kontseilaria,
Xabier Aizarna, Gipuzkoako Diputazioko buru,
Xabier Retegi, Hezkuntz Kontseilari ordea,
Udaletxeko jaunak
Euskaltzainak
Azpeitiarrak, eta hainbeste lekutatik etorri zareten guztiak
Jaun-Andreak: Agur eta arratsalde on!

Azpeitiko udaletxean biltzen da gaur Euskaltzaindia, eta biltzen da, hain zuzen, herriko seme baten Euskaltzaindian sartzea ospatzeko.

Ez da, noski, lehen aldiz. Eleizalde jauna hiltzean, haren hutsunea bete-
tzeko, azpeitiar bat, Karmelo Etxegarai jauna, hautatzen da. Eta honen sarre-
ra ere hemen, Azpeitiko udaletxe honetan, 1925. urtean, ospatu zen.

Kasto Orbegozo, orduko alkate jaunak, izan zituen hasierako hitzak. Ondoren Julian Elortza jauna mintzatu zen, Gipuzkoako Diputazioaren ize-
nean. Gero Karmelo Etxegarai jaunak egin zuen bere sarrera hitzaldia: “Mo-
geldarrak eta euskera”.

Azkenik, Eguzkitza-tar Jon euskaltzainak erantzun zion. Erantzunean
erabili zuen gaia haxe izan zen: Nondik etorri ote zaion euskarari gaur duen
ajea. Eguzkitzaren ustez goitik, gizarte goi-mailetatik datorkio, eta sendabi-
dea ere hortik beharko du. Ikus *Euskera* (1926), 1 z., 3-37.

Urte asko geroago, Euskaltzaindiaren urte ezteietan alegia, idatzi zuen
Artetxe jaunak ospaketa hari buruz. Ikus *Euskera* (1971), 85. Bospasei lerro
hartuko ditut Artetxeren hitzalditik:

“Zenbait urte gertakizun artatik? Berrogei ta bost, berrogei ta sei? Nere
jaioterrian zan. Azkar zabaldu zan berria. Bandua jo zuten. Erriko ezkiña

guzietan egin zuan alguazil edo meriyuak deadar eta aldi bakoitzean berri auxe:

Erritar ospetsu zan Karmelo de Etxegaray jaunak Euskaltzaindiko sarrera Errikoetxe gela nagusian egin bear zuala illunabarrian.

Alkate jaunak erritar guziei dei egiten zien. Alegia joan zitezela Ayuntamientura don Karmelori omenaldi egitera.

Mutil oso gaztea izanagatik ni ere joan nintzan Ayuntamentura”.

55 urte igaro dira ordutik. Bitartean zer eta zenbat gora-behera, etendura, urte txar, isilaldi luze, eta abar. Baina bizi nahiak indar gehiago izan du.

Gaur beste azpeitiar baten sarrera ospatzen dugu: Francisco Maria Altuna Bengoechea, Jesusen Lagundikoarena. Altuna jauna Euskaltzain urgazle da 1965. urtetik, eta igaz euskaltzain oso hautatua izan zen.

Salamanca Unibertsitatean egina du doktor mailako tesia Etxepare olerkariari buruz. Gure artean maila hori lortu dutenak uste dut eskuko behatzekin konta daitezkeela. EUTGn euskal irakasle da. Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutoko buru, eta abar.

Altuna jaunak aspaldidanik parte handia hartu izan du Euskaltzaindiaren lanetan, adibidez Aditzaren batzordean, Erakusleen batasunerakoan, Gramatika batzordean, etab.

Altuna jaunak egin dituen lanen zerrenda osoa ez noa ematera, hitz hauek ez luzatzeagatik. Titulu batzuk aipatuko ditut xoilki:

Euskera ire laguna
Mitxelena Idazlan Hautatuak
Euskal Aditza. Batua? Baturakoa?
Etxepareren edizio kritikoa.
Etxepareren hiztegia. Lexicón Dechepariano.
Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación.

Hau da tesis doktora “magna cum laude” Salamancan irakurria. Mitxelena jaunak hara zer dioten lan honi buruz:

“...la abundancia va unida al cuidado más minucioso, con un afán de rigor que no es demasiado corriente todavía en el campo de la filología vasca” (Prólogo, p. 10).

Oraindik argitara gabe, baina prestaturik dauka beste edizio kritiko bat: Ziburuko Etxeberrirena.

Horretaz gainera, eta euskarari eskeintzen dizkion eskola orduak eta ardurak alde batera utzirik (nahiz eta ez diren utzi behar), hamaika artikulua eta ikerketa lan atera ditu euskal aldizkarietan: *Euskera*, *Egan*, *FLV*, *Zeruko Argia*, etab.

Ettxepareri buruz aztertzeke eta argitzeke zeuden guztiak akitu zaizkionean Ettxeberri Ziburukoari lotu zaio. Sarrera hitzaldia ere XVII. mendeko euskal olerkari honi buruz egingo digu.

Guztiok dakiten bezala, euskaltzain berria jesuita da. Ez da hau une txarra euskarak Jesusen Konpainiari zor dionaz hitzerdi bat esateko. Basterretxea, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Gamiz guztion gogoan dira. Joan den mendean, berriz, Aita Arana. Eta gurean Lhande, Olabide, Mujika, Zavala, eta beste hainbeste eta hainbeste. Andima, Zaitegi eta Orixe, hirukote ahaztu ezinak ere, jesuiten artean izan zituela sustraiak, ez da ez dakienik. Eta berdin Lauaxetak. Zorionean hazi hori ez da ihartu, azkartu baizik, gaur ikusten dugunez. Eskerrik asko!

Akademietan ohitura denez, akademiko berriaren hitzaldiari akademiko zahar batek erantzuten dio. Altuna jaunaren aitabitxi edo aitaponteko izateko kargu hori Luis Mitxelena jaunak hartu du beregain, eta berak egingo du ihardespenezko hitzaldia. Bera izan zuen Altuna jaunak maisu gidari bere doktor lanean.

Eta besterik ez. Zorionak eta ongi etorria Euskaltzaindira eman nahi diot Altuna jaunari, nahiz eta aspaldidanik gure artean denari ongi etorria ematea zerbait bitxi den.

Azkenik, eskerrak Azpeitiko alkate eta Udaletxeari, ospaketa hau hemen ospatzeko aukera eman digulako.

ZIBURUKO IOANNES ETXEBERRIZ

Azpeitia, 1981-I-24


Patxi Altuna

Entre los asistentes al acto, observo la presencia de caras amigas, de personas para mí conocidas y entrañables, que, sin embargo, para desgracia propia y nuestra desconocen el euskera. No diré que les presento mis excusas, porque sé que comprenden de sobra las razones por las que mi discurso ha de ser pronunciado en euskara. Les ruego solamente paciencia, al tiempo que escuchan los sonos de una lengua, cuya sola música, pese a mi pobre interpretación, sé que producirá en sus oídos placer y agrado, porque aun ignorándola la aman, como lengua que fue de sus mayores.

Jaun andreok!
Azpeitiarrok!
Adiskideok!

Eta zuek batez ere, Euskaltzaindiko lagunok, zuekin bait dut nik gaur hemen egiteko larria garbitu eta zor astuna kitatu beharra. Utziko al didazue bertatik, aurrerago gogoeta hau berriz hedatuko badut ere, nere Maisu batek, eta ez nolanahikoak, behin esan zituen hitzak, aldatuz eta atzekoz aurrera ipiniz, zuei gaur esaten: “Vos me elegistis, non ego elegi vos”: zuek hautatu ninduzuen ni, ez nik zuek, alegia? Zuek zaretela bide eta kausa bait nago ni gaur hemen, Azpeitiak handikiro ospatzen duen San Sebastian festako irrintzi eta algaren oihartzuna herriko zeru-eguratsetan oraindik bizirik eta aski ozenik dagoen garaian etorria, Euskaltzaindian sartzeko egin ohi den mintzaldia egitera. Garai egokia iritzi diot honi herriko festak baino serioagoa den beste festa hau ospatzeko, hartara bataren seriotasuna beste herriko lagunen festa ondoko umore onak piska bat gozatuko eta alaituko zuelakoan.

Azpeitira etorri nahi izan dut zuen eskutik eginbehar hau betetzera eta ez dut uste luzaki ematen hasi behar dudarik erabaki hori hartzeko izan ditudan arrazoien kontu. Bi gauza bakarrik esango dut horrezaz: ni baino lehen Azpeitiko seme ospatsu batek ere, Don Karmelo Etxegaray jaunak, hementxe bertan irakurri zuen duela 55 urte, 1925garren urteko Ekainaren 25ean, Euskaltzaindian sartu zeneko mintzaldia, Kasto Orbegozo, orduan alkate zenak, eta Julian Elorza, Diputazioko Ahaldunak, ongi etorritzko hitzak egiten zizkiotelarik. Bestalde, bizi guztirako izango nukeen ximiko eta arrenkura, hark



Patxi Altuna Euskaltzaindian Sartze mintzaldian (Azpeitia, 1981-I-24)

bezala sortu nintzen herrian mintzaldi hau egin nezakeelarik, beste non edo non egin izan banu. Azpeitiarra naiz, izan ere, eta neure sorterria biziki maite dut, besteak beste —eta “beste” horiek banaka kontatu eta aipatzeko, denbora luzea beharko nukeenez gainera, alfer lanean aritzea izango litzateke, beren herriaz beti hain harro izan diren azpeitiarrek ongi ezagutzen bait dituzte—, besteak beste, diot, gaur oraindik Euskalerrian euskaraz gehientsuen hitz egiten den herrietarik bat Azpeitia delako. Nik ere esan ditzaket duela 55 urte Karmelo Etxegaraik hemen bertantxe esan zituen hitz haiek: “Emen, Azpeitian jaio nintzan; emen entzun nuen, itzegiten ikasi baño len, gure euskera zar maite maitagarria. Emen inguruan dauden mendiak, nik lenengo ikusi nituen mendiak dira. Aurtzaroko oroipenak Azpeitiko oroipenai itsatsita daude neretzat. Urte asko dira, emendik atera nintzala; ordea, urteak ez dute, nere biotzean Azpeitiarentzat sututa dagoen maitetasuna itzaltzeko indarrik. Eta Euskaltzaindian, zuek ala nai izan dezutelako, sartu behar dedanean, Azpeitira sarrera ori egiteko ni ekartzea, nere biotzarentzat oso pozgarria da”. Hala zioen hitzez hitz Karmelo Etxegaraik eta hala diot nik ere.

Ez dugu ezagutzen, damurik, San Ignazioaren garaian edo geroxeago Azpeitian egiten zen euskara, baina hori ez ezagutzearen errurik ez dute azpeitiarrek, Azpeitiko Junta Nagusiek onartu bait zuten 1609an Martin Yañez de Arrieta jaunak, Azpeitiko seme eta bere aita bezalaxe herriko maisu izanak, Azpeitiko euskaraz euskaratu zuen *Kristau Dotrina* argitaratzeko

eskatzen zuen dirulaguntza eta Ordiziako Juntak izan bait ziren gero, ez zuela merezi eta, behar ziren 200 dukatak ukatu zizkietenak. Haiek eskuratu balitu, gaurko euskara Azpeitian nolakoa den ez ezik, 450 urte lehenagokoa nolakoa zen ere jakiteko era izango genukeen.

Mintzaldia egin behar eta nik bi eratakoa baizik egiten ez dakidalarik, edota Elizan egin ohi diren predikuen gisakoa edota eskola ematean ikasleei egiten zaien jardun saioa, hemen agertu den jende motari eta bildu garen lekuari berari amore emanik, lehenari baino bigarren mintzaldi motari hobe iritzi diot eta Euskal Filolojiako eskolan banengo bezalaxe, antzineko gure idazle handi eta ospatsu batez arituko natzaizue: Ziburuko Ioannes Etxeberri.

Hona zerk eragin didan, Karmelo Etxegaray jaunak Mogel bezala, nik autore hau mintzagai hartzera. Lehenik, Etxepareren bertsoekin honenak erkatu nahiak eta haren bertsogintzaren lege eta arauak Etxeberrigan ere nabari diren ala ez begiemateko gogoak. Bigarrenik, idazle hau orain arte alde horretatik inork aztertu eta ikertu ez duela jakiteak. Hori, damurik, beste gehiagori ere gertatzen zaio euskal literaturan, gehientsuei esango nuke, egia; baina jardunaldi honetan zuei ikustarazi uste dudana bezala, Etxeberriri hori gertatu izanari hutsarte larriago deritzat, euskal literaturan izan ditugun idazle guztietarik bost edo sei hoberenatariko bat bait dugu, eta ugarienetariko, dudarik gabe, Ziburuko apaiz jauna. Eta horra hainbestez aipatua hirugarren arrazoia ere: apaiza zelako. "Beste gehiago ere bai, gehiegixko aukeran", esango dit agian norbaitek eta biziki poztuko nintzateke hori liostadana gazte balitz, horixe bait litzateke aitorrik hoberena apaizgizonok euskarekiko eta Euskalerrriarekiko zorra aski ongi kitatu dugula lau edo bost mende hauetan zehar. Eta uztazue, arren, honezaz bi hitz egiten.

Bestek, hiru lehenbiziko mendeetan batikbat, behar bezala zor hori kitatu ez badu, hor konpon, berek jakingo dute zergatik ez zuten euskararen alde lan gehiago egin. Euskal literaturarik gehiena apaizek egina bada, hori ez da apaizek behar zutena eginaren errua, izan ere, gainerakoek ez eginarena eta behar bezala ez jokatuarena baizik. Euskal literaturak ez du inondik gehiegizkoaren akatsik, gutxiegi, murriztegi eta urriegi izanarena baizik, eta hobe nahiz oparoagoa ez bada, ez da inola ere egin dena egin behar ez zelako, egin behar zen eta egin ez den gainerakoa egin ez delako baizik. Hor dago eta hor egongo da betiko, gaurko eta lehengo zenbait lagunen amorraziorako bada ere, elizgizonek egin dutena; ona ala txarra, ez da hori kontua, gainerakoen zitekeena eta ez dena ere ez bait zen nahitaez ezin hobe edo bikaina izango; hartuko genuke, halaz ere, bere akats, muga, zimur eta guzti beste horiena; ezin hartu, ordea, ez bait zuten egin, elizgizonek egin zuten bezala. Duela 450 urtetako euskara ezagutzen badugu, elizgizonei zor diegu ia osoro, Garibay kendurik; XVIIgarren mendeko euskararen lekukorik baldin badugu, elizgizonak ditugu ia lekuko bakarrak, Oihenart eta beste bakarren bat saiesturik. Eta bizi garen egunotan, Elizak Euskalerrrian eta Euskalerrriarekiko bete duen egingizuna zenbaitek dudana jarri nahi duen garai berri hauetan, hau ozenki

eta goraki aldarrikatzeari garrantzi handiko deritzat. Hori garbi utzi eta gero dioela nahi duenak nahi duena. Ziburuko Etxeberri ere apaiz zen eta inoiz Azpeitian eta Loiolan izana, gainera, San Ignaziori eskerrak ematera etorria, zerutik iritsi omen zion mesede handi baten alde, berak bertsotan dioskunez. Horra zergatik hartu dudan idazle hau mintzaldi honetarako aztergai.

Oso gauza gutxi dakigu haren bizitzaz, antzineko euskal idazlerik gehienaz bezalaxe. Noiz jaio zen ez dakigu, baina haren lehen liburua argitara zen urtea (1627) kontuan harturik, hamaseigarren mendearen bigarren erdian, 1575ean edo, sortu zela esan dezakegu. Paben ikasi zuen jesuiten ikastetxean, Oihenartek bezalaxe, eta honek baino urte batzuk lehenago, noski, Mauleko idazlea 1592an sortu bait zen. Goresmen eta laudorio handiak egiten ditu bere garaiko jesuitez: haiei zor omen die dakien guztia. Eta ez zen gutxi hark zekiena. Garai hartako lehen ikaskuntzak gutxi gorabehera nola-koak izaten ziren badakigu: *Humanitate* zirelakoak ikasi behar izaten zituzten, oinarrizko hazibide gisa, gero gainerako ixtudioetan (Filosofian, Teologian, Zuzenbidezkoetan eta abarretan) murgilduko baziren. Aski da Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae*-ri begiratu bat ematea, apaiz ez zirenek ere latina zenbatetaraino menderatzen zuten jabetzeko. Ez da batere harritzeko, beraz, apaizek —baita euskaldunek ere, edozeinek ez baina— latinezko bertsoak Virgiliok edo Ovidiok bezain biribilak eta hutsgabeak egin izana, geroxeago ikusiko dugunez. Etxeberrik Teolojia ikasi zuen gero; ez, ordea, edozein apaizek orduan eta geroago ikasi behar izaten zuen neurrian bakarrik, baizik hartan Dotore izatera iristeraino. Unibertsitatean ikasia zen, beraz, Axular eta Oihenart bezalaxe, eta hauek ez bezala Dotoratua eskuratua, gainera. Horrez gain badakigu bere garaikoek, baita jende ikasiek ere, oso gizon jakintsu, azkar eta argitzat zeukatela, bizi zen egunetan fama handiz inguratua eta beti gizon handitzat hartua izan zela. Aurreraxeago dastatuko ditugu ingurukoek zioten estimuaren ondar apurrak.

Hiru liburu heldu dira guganaino hark idatzirik, baina ez dira horiek idatzi zituen guztiak, Oihenartek aitortuko digunez. Hona hiruren tituluak eta argitara ziren urteak: *Manual Devotionezcoa edo ezperen oren oro escuetan erabilltceco liburutchoa*, Bordelen 1627an argitara emana. Berrogeitabi urte geroago berriro argitara zen eta bigarren argitaraldi honezaz baliatu dira berriki HORDAGOkoak, bere bildumaren lehen ale gisa eman digutenean. Bigarrenaren tituloa hau da: *Noelac eta berce canta espiritual berriac Iesus Christoren biciaren misterio principalen gañean eta sainduen ohoretan besta buruetaracotz*, hau ere Bordelen 1631ean inprimatua. Honen azken edizioa duela hamar urte atera zuen Aita Akesolok. Hirugarrena, *Eliçara erabilltceco liburua*, Bordelen beste biak bezalaxe 1636an argitaratua eta Axularrek bere GERO eskaini zion Bertrand de Etchhaus Arzapezpiku berari eskainia. Hiru-rotarik lehena aztertu dut nik bereziki eta harraz mintzatuko natzaizue gehienbat, baina esango ditudanek Etxeberriren lan guztietarako balio dutela uste dut. Lehen liburu horren lehen argitaraldiko alerik ez dut ezagutzen eta ez dakit inon denik ere; ni HORDAGOk atera zuenaz baliatu naiz. Dena den,

ez dut uste alde handirik izango luketenik; gehienez ere bigarren argitaraldi-koak dituen hutsegite eta bertso hankamotz batzuk osatzen lagunduko liguke lehenak, apika. Aita Akesolok ere lan hori bera hartu behar izan zuen bere gain *Noelac* argitaratzean, honen lehengo argitaraldi guztiak hutsez aski beteak omen bait zeuden. Lehen argitaraldiko aleak, inon balitz, beste puntu batean ere lagunduko liguke, behar bada: hots, 3438garren bertsoaren inguruan bigarren argitaraldi honek bertso batzuk falta dituen, nik uste dudana bezala, ala ez argitzen. Dena den, bizi al zen oraindik Etxeberri 1669an? Nik ezetz uste. Oihenarten *L'Art Poétique Basque* 1665ekoa da eta, laster ikusiko dugunez, Mauleko poeta lan horretan Etxeberriz hildakoaz bezala mintzo da.

Oihenartek personalki ezagutu zuen gure Etxeberri eta harekin inoiz mintzatu ere bai, dioskunez. Mauleko poeta dugu, bestalde, euskal literaturan izan dugun lehen kritikalaria, bera baino lehenagoko euskal poetez, haien bertsogintzaz batikbat, bere usteak eta iritziak eman dizkiguna. Zer zeritzan Etxeberriri eta zer diosku haren bertsolanaz? Etxepareren bertsogintzari egotzi zizkion hutsegite berak topatzen dizkio Etxeberrirenari ere: inoiz inon egin ez diren hamabost silabatako bertsoak paratu dituela; euskal hitzek azken silabetan omen duten kantitatea bortxatzen duela, hitz emeak hartzak eta harrak emetzat harturik; maiz egiten duela poto, hitz beraz zentzu beraz baliaturik bertsoaren akaberan; bertsoaren hamabost silaba osatzeko, mugatzailea inoiz izenari eta adjetivoari, biei erasten diela; elisio-sinalefak gogoak ematen dionean bakarrik egiten dituela eta, esanak gutxi balira, “il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes”.

Ez dut hemen denborarik sei puntu hauek banaka aztertzeko; diodan laburkiro lehena ez dela egia eta bigarrena ere ez erabat, gehienez ere xubere-raz, Oihenarten sorterriko hizkeraz, bereiz bait daitezke hitz eme eta harrak eta, horrez gain, Zuberoko bertsolariek berek ez bait dute bereizkuntza hori kontutan hartzen bertsoak paratzean. Lau azken puntuak, aldiz, egiak dira, oraintsu prestatu dudana eta aurki argitaratuko den *Manual Devotionezcoa* honen edizio berrian erakusten dudanez. Azkenean honela mintzo zaigu Oihenart Etxeberriri buruz: “Il Est dommage que Cet Esprit aye mieux aimé s'appliquer a la poésie (pour laquelle il nouoit point de naturel) qu'a la prose, En laquelle Il auroit reussy Indubitablement; car (outre ses ouvrages Imprimés) ses Lettres familiaires, Escrites a aucuns de ses amys, son dictionnaire, Et ses conjugaisons (que Iay Ueus Escrits de sa main) rendent temoignage de sa suffisence en Cette langue”. Hona nondik dakigun Etxeberri, esan bezala, heldu zaizkigun hiru liburuez gain besterik ere egin zuela. Aurreraxeago beste bat ere aipatzen digu Oihenartek, “La façon de ses Noels, de son Egunoroscoa, Et de son Eliçara Erabilzecoa nest pas meilleure” dioskunean. *Egunoroscoa* delako hori ere ez ezaguna dugu. Al agure *Manual Devotionezcoa* bera ote da, honen titulu osotik Etxeberri *oren oro* dioena aldatu eta *Egun oro-scoa* izendaturik? Nik hala uste, beste biak (*Noelac* eta *Eliçara erabilltcecoa*) hor bait daude aipatuak. Akesolok, haatik, bestelako iritzia du: *Eliçara erabilltcecoa*-ren nahiz *Manual Devotionezcoa*-ren bigarren zatia

izendatzen duela hor Oihenartek. Nere ustez, ostera, *Manual Devotionezcoa* osorik dago hor bestela izendatua.

Eta orduko hila zela, horko “il nauoit” eta “il auroit reussy” horiek bere lehenaldizko adizkiz ez ezik, beste honako hitz hauek ere, eta ere garbiago, adierazten digute: ××Je lui ay ouy dire au temps qu’il composoit ses Vers qu’il trauaillait principalement pour les mariniers Lesquels les Chantoient sur la mer: Ce qui faict Iuger qu’il Escriuoit plus tots par Un motif de Charitté que par aucune ambition ou Vaineglorie”. Geroxeago itzuli beharko dugu berriro Oihenarten hitz hauetara.

Manual Devotionezcoa

Euskaraz inoiz idatzi den libururik lodien eta handienetakoa da, dudarik gabe; arnasaldi eta hegaldetarikoa. Handia neurritz, handia balioz eta edukiz. Bi zati nagusi ditu, aski desberdin elkarren artean; ez neurritz, baina bai balioz, ene ustez, lehenak bigarrenari alde handia daramaiolarik poesiaz eta goiargiz. Lehenak hiru mila zortzirehun eta hamalau bertsoan barrena Kristau Dotrinaren muina ematen digu aditzera, kristauak *jakin* behar duena, alegia, Etxeberriren beraren hitzez esateko. Bigarrenak ia beste lau mila bertsoan barrena kristauak *otoiztu* behar dituenak. Danera ia zortzi mila bertso ditu, beraz, Etxeberriren Manualak. Azkenean hitz lauz ematen ditu beste zenbait otoitz eta erregu. Nik lehen zatia bakarrik (3814 bertso) jaso dut lehenxeago agindu dizuedan eta aurki argitaratuko den neure liburuan. Lehen zati hau bere aldetik beste bi txikiagotan banatu du poetak: lehenaren lehenak kristauak sinetsi behar dituen egiak, katekisma, du gaia; lehenaren bigarrenak, ostera, gizonaren azken finak (herioa, iuiamendua eta abar) kantatzen ditu.

Hainbestez irudi dakiok inori Etxeberriren liburua ezin aspergarriagoa dakeela, baina hala pentsaturik huts itzala egingo luke. Ez da inola ere tradatu antzu, lehorra; ez da ere egia eta sinesgaien azalpen elkor, aspergarria. Poesia dario zenbait aldetarik, batez ere lehen zatiaren bigarren parteari. Pasarterik ederrenak hautatu behar banitu, 980-1152 bertsoak, herioaz ari denekoak; 1153-1532, hiltorian dagoen kristauaren aldamenen aingeru onak eta gaiztoak, arima bereganatu nahirik, elkarrekin dituzten eztabaida eta hitz borrokak; 2130-2202, iuiatu ondoan salbatuek eta damnatuek esango omen dituzten hitzak; eta azkenik, zeruko atseginez eta zorionez ari delarik ematen dituen 3615-3814 bertsoak bereiziko nituzke.

Ez dut uste, egia esan, euskal literaturan horren bizi eta gartsuki, horren egoki eta zailuki, horrelako aisetasun eta dotoretasunez, euskara aberatsez, ugariz, etorri lasaiez eta oparoz orrialde askorik eiho denik. Hizkeraren ugartasuna dastatu nahi duenak irakur bitza 2733-2786 bertsoak eta poesia hurrupatu nahi duenak, aldiz, honako sei bertsook dasta bitza; herioaz ari da eta honela dio poetak:

Hi aguertu artean tuc gure hitzac handiac
 Baiñan aguertu eta hic ichilltzen tuc mihiac.
 Arranoa dathorreño choriac dic catatcen,
 Nauaritu duenean, ordean, duc ichilltzen.
 Hitzaz eta gutzaz berdin duc, herio cruela,
 Gure ahoa hersten duc, hi aguertu becala.

Aurreraegi joan naiz ustekabeen eta liburuaz mintzatu, atarikoak aipatu gabe utzirik. Atarian badu, izan ere, liburuak zenbait gauza jakingarri. Argitara al zitekeen ala gauza okerrik eta gaitzestekorik bere baitan zuen erabakitzeko eta iritzia emateko, Apezpiku jaunaren izenean Axular ageri da bat, Gillentena Itxasuko Erretore jaunaren ondoan, eta baietz diote biek aho batez, “gendea progotcha daitequela eta hartaracotz imprimaturik arguitara illkhi daitequela”. Gero elizbarrutiko Bikario Jeneral Oiharard jaunaren baimena dator latinez. Gillentena ondoren berriz ere, baina orain bertsoz, euskarazko bertsoz, Etxeberriri zorionak emanez. Horiei esker dakigu Etxeberrik anaia medikua izan zuela eta orduko hila zela; lurrean ezin irakurri izan zituen bertsoak zeruan irakurriko omen ditu. Ohar gaitezen bidenabar Etxeberriren bertsoetan hatzemango dugun zenbait bereizgarri bitxi hemen ere ageri dela: hala nola *çure artea* den sintagma printzaturik eta *baño guehiago* den hitz andana bi bertsoetan barreiatutik dator.

Beste bi lagunen bertsoak, hauek latinez paratuak, datoz ondoren. Distikoak dira, hexametroatik eta pentametroatik txandaka, alegia; Ovidiorenak bezalakoxeak eta, gorago esan bezala, batere hutsik eta errurik gabeak formaren aldetik. Zortzi bertso ditu lehenak eta hamar bigarrenak. Lehenak Heguyrenak dira, bigarrenak Hirigoytirenak, eta latinez baino euskaraz aiseago adituko dituzuelakoan, euskarara itzulirik eskaintzen dizkizuet hamabost silabatako bertsoetan, Etxeberrirenak bezalakoxeetan, bai bait dute hauek ere argibiderik Etxeberriri buruz. Hona lehenik Heguyrenak:

Zeure bihotz onak eta Jainkozko maitasunak
 eragin dizu euskaraz Kristau Fede bilduma.
 Kantauriko hatsez lehen zeruko izkutuak
 eman tuzu, zanpatuz ur bestek ez urratuak.
 Hazi zintuen lurrean erein duzu halaber
 zerutik ekarritako hazi jori eta eder.
 Zergatik ez zara, bada, inor bekaiztu arren,
 lehen seme izendatzen gure Euskalerraren?

Artean inork euskaraz burutu ez omen zuen lana, Kristau Dotrina, egin duela lehen sei bertsoetan aitortu ondoren, bi azkenetan bere herriaren lehen seme izendatuz gero, norbaiti bekaizkoz gibela lehertu, alegia? Geroxeago tzat, eta hori “rumpente iecur liuore”, bekaizkoak inori gibela leherreraiziko badio ere. Zer esan nahi dute azken hitzok? Etxeberri Euskalerriko lehen

seme izendatuz gero, norbaiti bekaizkor gibela lehertu, alegia? Geroxeago izango dugu sendogarririk; baina bertatik aitor dezakegu ezin ikusia, bekaizkoa diola norbaitek edo norbaitzuek Etxeberriri; ez duela Etxeberrri hain poeta ontzat jo nahi, dudarik gabe. Nork edo nortzuek?

Stephanus Hirigoytirenak are ederragoak dira eta mamiz joriagoak. *Doctor medicus*, mediku jaun dotorea, zelako honek honela dio gutxi gorabehera latinezko bertsoz, nik euskaraz ematen badizkizuet ere:

Ereinotzak du berriki zure burua ingura,
baina zedroa iaugirik itzuri zaizu hura.
Eder da, bai, ereinotza; areago zedroa,
zerua ere lurra baino denez ederragoa.
Zor handian daude zuri gure itsastariak,
egin dizkiezularik esku antzez ontziak.
Haiek Neptunoren herrak, lurak, ez itsasoak
bere ahal guztiez, ez gizonen bekaizkoak
ez ditu, ez, suntsituren. Ontzi haiek betiko
Etxeberriren izenaz batean dira biziko.

Ereinotza ala zedroa, zein da ederrago? Poeta izatea ala itsas ontzi berriak, zedroz edo beste zuhaitz zurez egin ohi zirenak, asmatu eta moldatu izana, zer da goragarriago? Horra Hirigoyti medikuak bertso zehatz eta doietan iruten duen gaia. Biak da Etxeberrri: poeta eta ontzi berri asmatzailea. Horrelakorik ez genekien beste inondik, Etxeberrri teologoak, teolojiaren ikaste-irakasteak uzten zizkion txolarteetan, itsas gizonentzat ontzi berririk eta hoberik asmatua zuenik, alegia. Baina gu gehien harritzen gaituen puntua zera da: liburu honen, guk dakigula Etxeberrrik ondu zuen lehenaren atarian, Hirigoytik aitortzea berriki edo arestian ("nuper") Etxeberrri koroatua izan zela poetaren ereinotzez, poetaren bonetaz, Oihenartek liokeenez. Liburu hau baino lehen ondu ote zuen Etxeberrrik beste bertso libururik? Nolanahi ere, euskal marinelei egin dien mesedeak poeta fama itzalerazi du Hirigoytiren ustez eta hark asmatu itsasontziek bizirik iraungo dute beti Etxeberriren ize-nari loturik.

Ohar gaitezen hemen ere berriro Neptunoren herraz eta lur itsasoan ahal beldurgarriez gainera —guzti hori irudi hizkera izan bait daiteke, itsasontzien sendotasuna adierazteko— "hominum liuor mordax" aipatzen zaigula: gizonen bekaizko galgarria, zizkagarria. Hau ez da inola ere halabeharra, hau ez da txulapaz gertatua. Bi adiskidek bere lagun apaizari liburu berria argitaratzera doala eta zorionak emateko bertsotan biek bekaizkoa aipatzeak, dudarik gabe, gauza bat esan nahi du: badela Etxeberriren bertsoak tolestatzeko era oso eta oro erdeinatzen eta gaitzesten duenik, Etxeberriri poeta ize-nik opa ez dionik. Eta ez edozein, noski, baizik hori esateko nor denik, idazle edo poeta bezala bere aldetik zerbait denik edo zerbait dakienik.

Nabarmenago oraindik: Etxeberrik berak Claudius de Rueil Baionako Apezpikuari liburua eskainiaz paratzen dizkion bertsoetan (49-82) *inuidiosen mihia* eta *gaisqui errailleac* aipatzen ditu. Hona haren bertsoak:

Hartaracotz obra hunen patroin çaitut hautetsi
Gaisqui errailleac ceren baititutçu gaitçtsi.
Çuri escaintcen darotçut othoi guarda eçaçun
Inuidiosen mihia licun eztieçaçun.

Eta hori gutxi balitz, *Manual*-aren bigarren zatian ere *Itsassoco biayeta-co othoitcen araldea* Miguel Oiharart Bikario Jeneralari eskaintzen dion bertsoetan, *invidia* eta *hitzquin mihia* datozkio berriro lumara:

Prestutassun eçagunac hauts deçan invidia
Eta ahoco hitz batec ichill hitzquin mihia.

Nor zaio horren etsai, horren gaitzi gure poetari? Lapurdiko garai hartako idazleak, Sarako eskolakoak, ez, noski; hor ageri dira liburuaren atarian, baita *Noelac* deritzanarenean ere, batzuk liburua argitara daitekeela esanez, besteak bertsoz zorionak emanez. Nor, hortaz? Ez dugu, nik dakidala, hori jakiteko bide segururik, baina ausardia bada ere, hona nere susmoa: Oihenart izan daitekeela iruditzen zait, edo Oihenart ere bai bederen. Gatozen horretarako berriro gorago aipatu ditugun Oihenarten hitzak eta Etxeberrirekiko iritziak ausnartzera eta ikusiko dugu, nik uste, egiantzeko samarra dela uste hau.

Oihenartek, jakina denez, trakets eta arlote deritza bera baino lehenagoko euskal poeten bertsogintzari; poeta baino gehiago omen dira “vulgares versificadores”; ez omen dituzte betetzen edozein hizkuntza landutako poetek betetzen dituzten legeak. Ez ditut hemen berresango Etxeberri eta gainerako poeta guztei, Etxepare ere artean delarik, egozten dizkien hutsegiteak; gora-xeago bildu ditut sei puntutan; ez eta euskal metrikak, behar bezalakoa izango bada, Oihenarten ustez nahitaez bete behar dituen kondizioak aipatuko; azken batean bi baizik ez dira: puntu aberatsa eta elisio-sinalefak beti egin beharra. Bai jasoko hemen, ordea, “Et il se donne en plusieurs lieux d’autres licences exorbitantes” delako hura eta gero, Etxeberri nolazpait goratu nahiz bezala, beste horiei erasten dizkienak: “Il est dommage...”: hobe zukeela, alegia, bertsoak ondu beharrean, hitz lauz idatzi balu, bertsoarako ez omen zuelako berezko etorririk (“point de naturel”); bai, aldiz, hitz lauz idazteko.

Hori dela eta, hona gogoeta batzuk, Oihenarten esanekin batera ez nato-rrera garbi agertuz:

1. Berezko etorria bertsoan aritzeko izugarria du Etxeberrik; ene ustez; hori gabe ezin daiteke inola zortzi mila bertsoetako libururik idatz eta, horrez gain, beste bi, bertso sail izugarriak dituztenak. Gauza bat gertatzen zaio: ez duela uste aho hizkeraren sintagmak eta hitz andanak bertsoan ari

denak ezin urra ditzakeenik; are gutxiago, noski, Oihenarten bi legeak nahitaez bete behar direnik, batez ere inor herri bertso gintzan ari denean.

2. Etxeberriren hitz lauz idatzitakorik gutxi irakurri dut, Oihenartek baino gutxiago, noski, nik ez bait ditut, guregana ez direnez gero, haren *Lettres familiaires* direlakoak eskupidean, eta hainbestez ez naiz Oihenart bezain egoki eta gai Etxeberriren hitz lauz idazteko trebetasuna baieztatzeko nahiz ukatzeko. Baina *Manual*-ak azken orrialdeetan dakartzan hitz lauzko *Othoitz dobleac*, *Kirieleisonac* edo *Litaniac* bai, eta horiek irakurri ondoan ozenki esan dezaket Etxeberri poeta Etxeberri prosalaria baino mila bider idazle trebeagoa dela alde guztietarik.

3. Halaz ere, *Othoitz dobleac*, *Kirieleisonac* edo *Litaniac* inoren idazkeraren gaitasun eta trebetasuna nabarmentzeko oso gai aukerakoak ez direnez gero, onartzen dut, eta oso pozik onartzen. Etxeberri hitz lauz ere "au-roit reussy indubitablement" delako hura. Baina nik ulertzen ez dudana hauxe da: hori porogatzeko nola esan daitekeen *Hiztegiak* eta *Konjugazioak* "rendement temoignage de sa suffisance en cette langue", ez bait dut uste inork egini-ko hiztegian eta aditzaren konjugabideen agerpenean prosaz idazteko trebetasunik ager eta nabarmen daitekeenik; gehienez ere, Kirieleisonetan bezalatsu, nik uste.

4. Bego gainera bertsoak ez direla Oihenarten gogokoak; hartzeko nahiz arbuiatzeko eskubide osoa du; baina, hori dela eta, *Manual*-ean Etxeberrik "suffisance en cette langue" erakusten duela dudana jarri, hori gehiegizkoa da eta ezin onartuzkoa. Gauza bat da, izan ere, eskola bateko nahiz beste poeta izatea eta horren arabera bertsoak tolestatzean erregela hauek edo haiek betetzea, eta bestea, guztiz bestea, hizkeraren jabetasuna izatea edo ez izatea. Euskararen jaun eta jabe ageri zaigu bete betean Etxeberri bertso erresekada luze hauetan barrena.

5. Arrantzaleentzat paratzen omen zituen batikbat bertsoak: Etxeberrik berak esan omen zion. Hau ere Etxeberriren balioa gutxitzeko esana da, dudarik gabe, arrantzaleentzat gehienez ere *Manual*-aren bigarren zatian dagoen *Itsassoco biayetaco othoitcen araldea* izango bait da beregainki egina, baina gainerako bertsoak, Kristau Dotrinari eta gizonen azken finei dagozkienak eta beste bi liburuetakoa, ez dut uste arrantzaleentzat bereziki eginak direnik, euskaldun guztientzat baizik. Hona zer dioen berak:

Guiristinoa, eman diat escarazco versutan
Catholico Manuala neure asti ordutan,
Ikhussiric nola bainaiz iaiatcen escalduna
Gure natioa dela copla maite duena.

Oraino aipatu ditudan Oihenarten hitz guztiok haren *L'Art Poétique Basque*-tik, Lafitte jaunak 1967an argitara eman zuenetik, hartuak dira. Oihenarten esku izkribuak 1665ko fetxa darama; ez dakigu, ordea, damurik

esku izkribu hori bertan ageri den fetxan lehen aldiz eginiko txostena den ala zenbait urte lehenago idatzitako libururen baten borradore gisako zirriborroa den, gero atalburuan fetxa berria ezarri eta beste gabe inprentarako moldatua edo persona bati bidaltzeko prestatua. Txostena eskutitz gisa oratua dago, izan ere, eta —puntu harrigarria!— Lapurdiko apaiz bati zuzendua. Gainaldean daraman titulu osoak honela dio: *L'art Poétique basque, indiquée dans Une lettre Escrite a Un cure du pays de Labourt au mois de mai 1665*. Delako apaiz horrek galdetu omen zion —hala dio eskutitzaren hasierako lehen lerroetan— ea nola demontre ontzen era neurtzen zituen euskal bertsoak. Gogora gaitezen orduko, lehen esan bezala, Etxeberri hila zela, txosten honen azkenaldean, bera baino lehenagoko poeten berri ematean, lehenaldi urruneko adizkiz baliatzen bait da Etxeberriz mintzatzean.

Horiek horrela direla, hona nere susmoa eta hipotesia: Etxeberri hil berria da eta haren heriotzak ilaunetatik piztu du berriro antzineko eztabaida. Etxeberriren aldeko zen apaiz baten galderari erantzunez, edota inork galdetu gabe, hori aitzakia eta literatur jakera izan bait daiteke soilik, Oihenartek Lapurdiko apaizei, Etxeberri poeta handitzat daukatenei, erakutsi nahi die nola apaindu behar diren euskaraz bertsoak; zergatik ziren Etxeberri eta gainerako guztienak arrote eta aldrebesak, gehienez ere etxeko jendeari erakusteko onak, ez, ordea, beste hizkuntzetan ontzen zirenekin erkatzekoak, haiek betetzen zituzten lege eta kondizioak euskarazkoetan ere onartzen ez ziren bitartean; zergatik ez zuen, azkenik, poeta jatortzat, izen horren dinakotzat, hartzen eta esten Etxeberri. Ohar gaitezen bere liburuxkaren azken xoko horretan Oihenartek jorratzen dituen lau poetetarik luzaroen eta gehien Etxeberriz mintzo dela, honen hutsak aipatzen dituela besterenak ez bezala xeharo eta banaka, exenpluak liburutik harturik, ia denak *Manual*-etik hain zuzen, eta egiten duen goresmen bakarra dela apaiz zintzoa zela, arimen onerako ontzen omen zituelako erlijiozko bertsoak, eta ez, Etxeparek bezala —hau ez dio hitzez hitz, baina garbi dago hori esatean Etxepare duela gogoan—, arimen hondamendirako izan zitezkeen bertso lizun eta likitsak. Arrazoi guztio-gatik uste dut Oihenart dela, edo izan daitekeela bederen, Etxeberriri bekaizkoa diona; esteak eta gibela lehertuko zaizkiona, Heguyk nahi bezala, Etxeberri Euskalerriaren lehen seme izendatzen eta aldarrikatzen bada.

Baina aski bedi gaurkoz Etxeberriz, gehiago ikasi nahi duenak aurki izango bait du liburu berria, Euskaltzaindiaren *Euskararen Lekukoak* deritzan bilduman argitaratua, bere egartsua berdintzeko eta idazle garai honen euskara aberatsez asetzeko. Amaitzera noa, beraz, mintzaldi honen hasieran bezalaxe zuei, Euskaltzaindiko lagunoi, azken hitzak zuzendurik. Zuek hautatu nauzue, berriro esan, eta Euskaltzain oso izendatu, eta hori dela bide eskerrak zor dizkizuet eta nik hemen gaur lekuko guzti hauen aurrean bihotzez ematen. Aukera hori egiteko izan dituzuen arrazoiak ez dakizkit eta ez dut ere jakiteko gogorik, zuek egina dela jakitea aski bait da nik gogo onez onartzeko. Gauza bat bai badakit, ordea; badakit ondotoxoz izendapen hau ez dela ordain eta sari; ondotoxo dakit ez dituzuela nik gaurdaino euskararen alde

irabazitako nola-halako merezimenduak sariztatu nahi izan; aitzitik, orain arte, alferkeriaz edo, egin nezakeen baino gutxiago egin dudala ikusirik, lan gehiago egitera deitu eta akuilatu nahi izan nauzuela. Ondotxo dakit izendapen hau ez dela inolako ohore, baizik bultzada eta zirikaldi. Ondotxo dakit Euskaltzaindiaren eginbehar eta helburu bakarra den euskararen indartze, hedarazitze eta ikertzeko zereginetara bakarrik erakarri nauzuela erakunde honetara.

Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet, Jainkoak osasun eta indar eman nahiko didaino, eginahalean saiatuko naizela zuekin batean egiteko hori burutan ateratzen. Ez, ordea, eska neri, otoi, egin dezakedan eta ahal dudan baino goragoko lanik. Nere arloa ez da, dakizue, goi mailako Linguistikaren katramila zail eta ilunak argitzea; nere hesparrua Filolojia da, autore zaharren hizkera aztertzea eta horrek Linguistikarekin zerriksirik duen heinean murgilduko naiz ere Linguistikaren eremuko zoko nahasietan.

Diodan azkenik beste hau: Lojendio jaunak hiltzean hutsik utzi zuen aulkiaz jabetzera nakarzue eta honek ere nere egitekoa are astunago eta neketsuago bihurtzen du. Guztiok dakizue, izan ere, nolako zerbitzuak errendatu zizkion Lojendio jaunak Euskaltzaindiari, batez ere euskararen alde Madrilgo Hezikuntza eta Jakintza Ministeritzari egin zitzaion eskutitz hura izenpetuz eta 1966an Euskaltzaindiak bere Arautegia berriztatu zuenean, legegizon zenez bere jakinduria eta urte luzeetako jardunaren trebetasuna oso eta oro lan hartan ezarritik eta irauliz. Euskaltzainburu ere izan zen, denbora gutxi izan bazen ere, baina denbora labur hartan Euskaltzaindiari tankera eta jokaera berriak hartzen biziki lagundu zion. Hor daude horrez gain ixilik, baina xarraka xarraka, euskaraz egin zituen lanak eta artikuluak *Euskera*, *Egan*, *Aranzazu...* eta gainerako idazkarietan. Inoiz entzuna dut, ez naiz oroitzen nori, berari ala besteri, Aita Mendibururen idazlanak oso maite zituela; ohe ondoko mahai txikiaren gainean eduki ohi zituela Oiartzungo idazlearen liburuak eta ez zuela inoiz loak hartzen liburu haietako zenbait orrialde irakurri gabe. Haren aulkia jabe egin nauzue, gero, ez zait bidezko iruditu esku hutsik etortzea eta Lojendio jaunarentzat bezua edo opari txiki bat dakart, hark, bizi balitz, oso gogoko lukeena, ene ustez: datorren urtean Mendiburu hil zeneko 200garren urtemuga ospatzen denez gero, Mendibururen idazlan guztiak argitaratzeko asmoa eta lana hartu dut berriki neure gain eta orain-txetik bertatik Lojendio jaunari eskaintzen diot egiteko hori.

Eta besterik ez. Eskerrak berriz ere zuei eta hemen bildu zareten azpeitiar eta adiskide guztioi, eta batez ere Azpeitiko udaletxeko agintarioi jaialdi hau hemen ospatzeko baimena eta erraztasun guztiak Euskaltzaindiari eman dizkiozuelako.

PATXI ALTUNARI ERANTZUNEZ

Azpeitia, 1981-I-24

Koldo Mitxelena

Jaun-andreak:

Aita Altunaren Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldiari nolazpait erantzun beharrean aurkitzen naizenez gero, biziki pozgarri zait erantzun hori Altunak berak eskatua izatea, non gainera eta bere jaioterrian, ia Euskal herriaren bihotz dirudien Azpeitia honetan, oroigarri zahar eta berriz inguraturik gaudela. Eta honako hau bidenabar bederen esan nahi nuke: ez naizela noski hautatua izan neuregan aurkitu duen baliakuntzaz baliaturik dagoelako orain Altuna dagoen aulkian jarria. Baliatzaileen premian izan balitz, bazukeen bazterretan baliatzaile sendoagorik.

Estreina baitut lanbide hauetan, bestetan entzuna beharko dut izan neure zentzuna. Eta, aditzea dudanez, ohiturazko eta are legezko omen da hone-lako okasio larrietan sartzen denaren merezimenduak banan-banan aipatzea eta goraiatzea. Eta hortik hasiko naiz, prediku mota horietarako eztarri bajuxta badut ere.

Diodan, bada, jakina jakinaren gainean pilatuaz, hemen, Azpeitian, jaioa dugula Patxi Altuna 1927ko irailaren 8an. Jesusen Lagundian ere, bertatik bertara, Loiolan sartu zen, 1945ean. Hemen Nobiziadutza eta Humanitateak egin ondoan (1945-50), Oñan lizentziatu zen Filosofian (1950-53).

Salamanca burutu zuen gero (1953-57) Filosofi-Letretako lizentzia, Filologia klasiko sailean. Eta urtebete gehiago ere eman zuen han, ikasten eta irakasten, Dotoradutzakoak prestatzen zituen bitartean bere gain izan baitzuen, Tovar-en ordeaz, honek sortua zuen "Manuel de Larramendi" euskal ikaskuntza katadera, Pontifizian ere berebat linguistika irakasten zuelarik.

Han geldi zitekeen, irakaslegoan, Martin S. Ruipérez-ek behin eta berriro, baina kexu beti, esan izan didanez. Teologia egin behar ordea, eta Oñara joan zitzaigun Altuna (1958-59), eta Innsbruck-era gero (1959-62), eta bitarte horretan egin zen hemen, Austrian, apaiz (1961). Eta Konpainiari dagozkionak buka ditzadan, "Hirugarren progantza" delakoa hartuko dut azkenik ahotan: hori Gandian egina du, 1962 eta 63en artean.

Argitara dituen liburuak izendatu behar ditut orain, baina hortan hasi baino lehenago, aitortu beharrean naiz ezin bestean baztertuz egin beharko ditudala, zenbait aldizkaritan agertu dituen lanak. Halaz guztiz, eta nahiz artikulua ixilpean utzi, bada, haatik, beste zerbait aldeztu aurretik, eta besterik baino lehenago, oihukatu nahi nukeena, ea han edo hemen oihartzunik sortzen ote duen. Ahazkorren artean bizi garenez, eta maizegi *de propos délibéré* ahazkor diren artean, ez nuke guztiok ezagutzen dugun argia gaitzerupean gorde nahi. Aita Altuna, besteak beste, sermogile garaia dela eta izan dela Euskal Herrian. Ez diot deus kenduko bere hitz-etorri eta hitz jarioaren orrazketari, antzinakoen segizioa baita arlo horretan, inor baldin bada: hots, Axular, Larramendi eta gure arteko beste hainbesteren segizioa; eta gidari ere bai, beraz, ez baita egiazko berrikuntzarik zahartzaroaren oinarrian eta ezagueran finkatua gerta dadina baizik. Orduan, eta lehen-lehenik, irakatsi ziguna goragoko beste zerbait izan zen: hizlariak, alegia, ez duela soil-soilik *uir bonus, dicendi peritus*, harako Kalahorraz hark agintzen omen zuenez. Horretaz gainera, *uir fortis* ere izan behar du, inguruan ikusten duen egoerak horrela agintzen duenean. Hitzak esan ziren, esanak daude, eta ez ditu noski haizeak berehalakoan eramango. Izango da gure artean ere bakoitzari berea, urteen buruan bederen, aitortuko dioen joera. Aldiko agintariekin besterik uste badute ere, or gelditzen dira, luzaroan gainera, nolanahiko lekukoak: gizakumeen oroitzapenak eta gure bizia baino gehiago irauten duten paper zaharrak.

Bitarteko hau sartu dugunez gero, Altunaren liburuetara jo dezakegu, ederki adierazten baitute honek aspaldidanik hartu zuen bidea, bidagurutz eta guzti. Oroit dezadan hainbeste argitaraldi izan dituen *Euskara, hire laguna* I, bigarren argitaraldian (1972), batuan agertu zena, *h* eta guzti. Erants dezadan halaber badituela beste bi ale, bigarren mailako liburua eta ariketak dakartzana. Harako beste hura ere, *Euskal aditza: batua? baturatua?*, ildo beretsutik doa. Ikas- eta irakas-bide berriak, zaharrak baino egokiagoak zitezkeelakoan, eskura zizkigun. Hortaz gain, eta bideak bide, helburu, xede batera zeramatzatekelakoan eskaini zizkigun. Hona nora zeraman, ustez behintzat, hartu zuen abiadak: euskara batu nahiz baturako batera; ez han-hemengo eskualdeetako hizkerara.

Euskararen zabaltzea eta hedatzea izan zuen amets, eta egingo nuke orain bertan ere amets berberori duela eragile, eta euskaldunen arteko mintzabide zehatz eta bakoitz izan daitekeen euskararen atzetik dabilela. Eta liburuak egiteaz gainera, bera dugu irakasketan aritua, zeregin umilago hori besteren bizkar utzi gabe, nekearen eta izerdiaren podorioz.

Aipatu berri dudana amets horrek berorrek liluraturik hartu zuen bere gain norbaiten *Idazlan hautatuak* argitaratzea ere, batasunaren on eta probetxurako izan zitezkeelakoan. Eskerrak zor dizkiot, baina ez dut halaz guztiz uste behar bezala jokatu zuenik, hobeki behintzat joka baitzezakeen. Asmo ona, intentzioa, zen Altunarena; fruitua, berriz, besterena. Eta azken honen balioa ez zait hain gogoangarria iruditzen.

Ezagutu, Salamancan ezagutu nuen Altuna, bera ikasle zebilelarik deserrian eta ni ez dakit nola, hara agertzen nintzen haietan ez bainintzen ofizioz ez txoil ikasle eta ez txoil irakasle; bai, agian, bien erdiko. Igande ilunabar batez edo bestez oroitzen naiz, negu-giroko iluntze goiztiarrean batera eta bestera genbiltzalarik, Euskal herriaren etorkizun beltzaz ardurati, ezinbestean. Nik ez nuen orduan aukerarik han gelditzeko, ezta nahi izan banu ere; berak, bai, ordea, oraintsu esan dudanez. Baina, apaiztarako noraezeko zituenek kanpora, bazuen noski ordurako beretarren artean irakasteko mina. Hizkuntza klasikoak, haatik, ez zituen erabat baztertu, berak gogorazi didanez. Altunak hartu baitzuen latina oraindik E.U.T.G. izena ez zeraman irakastegian, nik 1963an utzi behar izan nuenean, Urkixo Mintegiko lanbidea hartzeko.

Latina eta antzekoez gainera, euskara ere irakatsi du, bai horixe, luza-roan eta etengabe. Laudorio-truk, lekuko bakarra aipatuko dut orain: Tadao Shimomiya irakasleak, Patxi Altunaren gidaritzeapean ondu eta agertu duela ozenki aldarrikatuaz, Tokyon argitara berria duen *Manual de lengua y cultura vascas: lengua, literatura, folklore, método de vasco unificado, antología, gramática y glosario*, 1979. Badu beste titulua ere, berezkoagoa, baina ez naiz gauza ezta irakurtzeko ere, japonés erara idatzia dagoenez gero.

Euskara zabaldu, beraz, eta zabalago heda dadin eta sustrai iraunkorra-goak luza ditzan, baturik zabaldu, batura ahal daitekeen neurrian. Horrelako zerbaiten bila, zenbat aldiz ez gara bildu, Aresti zena lagun, aditzaren batasunerako batzordean, Altuna genuela idazkari, sesio bizia zerigula batzuetan eta arrazoi baketsuetan iheri beste zenbaitetan, eta haraindiko ertzearaino inoiz igaroko ez ginelako beldurrez gehienetan. Eta, halaz guztiz, jo genuen jomuga eta heldu ginen helburu nagusira, aspaldi heldu ere, nahiz orro eta makakorroka maizegi ibili. Beharrak eragiten duenean, guztion ondasuna galbidean ageri zaigunean, oihuak oihu eta sesioak sesio, utzi eta baztertu egiten dira, azken finean bederen, norberekoikeriak eta eskualdekeriak.

Orduan, bada, baturakoa erdi batu bihurturik eta batasunaren berria bazterretan zabaldu ondoan, bazirudien Aita Altunak ere atsedean har zeza-keela, lan larrien ekoizpena ederki biribildurik inguruan zuela. Ez da horrela izan, inondik ere, eta euskararen onerako ez da horrelakorik gertatu. Gogoan baitzuen lehengo asmo hura, presak eta premiak berandazia bazuten ere, *Altertumswissenschaft* delakoaren ziztadak sortua eta ernatua zeramana: hori inoiz erraietan sumatu dugunok ez baitugu aise berdinduko Filologiaren egarria. Gurea ez da, bistan dago, Filologia klasikoa, bai, halarik ere, Filologia, eta elkarren senide dira hango eta hemengo Filologia guztiak, harako beste hura gidari eta eragile dutelarik, guztiz ere.

Ez da miresteko lanerako gogoak bulkatzen duen norbait zalantzan luzaroan egotea, zeri ekingo. Dudamudak utziak ditu Altunak, berak aitortzen digunez, bai ahozko eta bai izkribuzko jardunean, eta begiz jo eta hautes-tsi duen sailari, berari entzun diozute, Euskal filologia deritza: "Nik neure aldetik hitz ematen eta zin egiten dizuet, Jainkoak osasun eta indar eman

nahiko didaino, eginahalean saiatuko naizela zuekin batean egiteko hori burutan ateratzen. Ez, ordea, eska neri, otoi, egin dezakedan eta ahal dudan baino goragoko lanik. Nere arloa ez da, dakizuenetz, goi mailako Linguistikaren katramila zail eta ilunak argitzea; nere esparrua Filologia da, autore zaharren hizkera aztertzea eta horrek Linguistikarekin zerrikusirik duen heinean murgilduko naiz ere Linguistikaren eremuko zoko nahasietan”.

Eta oraindik orain, esate baterako, hasia baldin badugu ere, ez zaigu, ez urrik eman ere, esku hutsik azaltzen. Hor dugu hiru liburu lodi eta aberatsen (tesia barne dela) lekukotasuna, lekukorik behar bagenu, bata bestearen lehian bezala plazaratuak: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, eta *Etchepareren hiztegia: lexicon dechepareano* eta, beste guztien buru, gure lehenbiziko poema-liburuaren edizio kritikoa. Honi eskerrak ikasiko du zenbaitek, nik uste, bestetan gauza ongi jakina dena: *fac-simile*-ak, nahiz berez eta bere arloan probetxugarriak izan, ez direla sekula izan ez izango edizio kritiko onaren ordain zuzen.

Zuen baimenarekin, hitz bi sartu nahi nituzke hemen eskupeko Filologiaren izena eta edukia zertxobait mugatzeko, aski nahasiak baitabiltza gure artean —eta ez gure artean bakarrik— aspaldixkodanik. Urkixo, don Julio, ez nuen zoritxarrez behar adinbat tratatu, gaitz hilgarriak joa ageri baitzen eza-gutu nueneko. Izan genituen, halaz guztiz, zenbait elkar-hizketa eta, halako batean, hauxe esan zidan, bere burua zuritu nahiz bezala: “Yo no soy filólogo”. Eta ez nion ezer esan, sobra eta gehiegi banekielako zertaz ari zen eta adierazi nahi zidana beste hau zela: “Yo no soy lingüista”. Izan ere, egiazko filologorik izan baldin bada gure artean eta gure arteko, don Julio izan da hori, beste edozein baino areago. Eta, inor izendatzekotan, bera izendatu beharko genuke etxekoan artean filologo guztien patroiz.

Ez diot deus berririk erakusten Altunari. Badaki honek, nik bezain ongi, nola Filologia, Gramatikaren altzoan hazia izanik, luzatu gabe abiatu zela bere bidetik, gramatikarenetarik, hori bai, behar baino gehiago aldendu gabe. Gero, XIX. mendean guztiz ere, hizkuntzalariak harro-harro burua nabarmentzen hasi zirenean, sortu zen gora-behera eta tirabirarik. Baina, hau gogoan eduki behar da, hizkuntzalariak izan ziren, filologo ere gehienbat zirelarik, bere nortasuna ezaguterazi eta bere buruaren jabe zirela, eta ez inoren mendeko, agertu nahi izan zutenak.

Aspaldiko gauzak dira horiek, damurik. Oraindik ere badira batzu batean zein bestean, bi sailetan, maisukiro jokatzan dutenak; gehienek, ordea, nahiago (eta erosoago, noski) dute nor bere bidetik ibiltzea. Nolanahi ere den, nahiz eta hizkuntzalaririk sonatuenetako frankok erabat arbuatua badauka ere filologia, ez dugu horrenbestez esan, ez da esango ere, andre linguistikaren mirabe umila baizik ez dela filologia.

Aitzitik, zeharo bestela litzateke. Lanbidea lanbide, askozaz ere zabala-goia da filologiarena linguistikarena baino. Hizkuntzalarien eremua, gaiaren

muina hitzez-hitzez hartzen badugu, hizkuntzak mugatzen du. Badakigu, egia, hizkuntzaren muga oro-inguratzaileak mundu osoarenak direla (izan daitezkeen mundu guztienak, nolazpait esan); hizkuntza bera du, halere, bere soilean, dagokion eta egotzi zaion lanbide bakarra, gainerako guztia (zenbaiten ustez bederen) delako zorioneko "inmanentzia"-ren hesitik ihes ibiltzea bailitzateke. Filologiak, berriz, testua (ahozkoa nahiz izkribuzkoa) du eremu eta, testua landuko baldin bada, hori bere araztasunean argitaratzeko eta ulertarazteko edonolako tresnak erabili beharko ditu. Nagusi da, beraz, eginkizunez, hizkuntzalaritzaren aldean eta ni behintzat, horrexegatik beragatik, ez naiz sekula ausartu, oraintsu arte, sail horretako gaiak lardaskatzen, esku trebeagoren premian zirelakoan.

Halaz guztiz, eta ezinbestean bederik, nik ere igaro ditut atea eta oinak lur sakratuan, begiramenez ikara, ipini. Horra bada non egin dugun topo Altunak eta biok, alor berbera lantzeko asmoaren eraginez. Ez gaude bakarrik, zorionean, ezta alderatzeko ere. Etorkizunerako ere, orainaldia baino hobeagoa izango delakoan, baditugu ametsak. Guk ere esan dezakegu, bidazti-olerkariaren antzera:

Ibilgo-buru

.....
aur begi-argirik anitz bekargu

Etorkizunaren mendean daude, bada, alde gure ahaleginak: eta alde gure mendean. Bakarrik ez ibiltzeak ez du, honelako gaietan, onura baizik ekartzen. Edozein jakite sailetan, baita euskal filologian ere, elkarren lehia lantza behar dugu, norgehiagoka bortitza. Lehiak, ordea, probetxurako izango baldin bada, leiala behar du izan. Hizkuntza eta, hizkuntza ez ezik, Euskal herriaren jakintza jaso nahian jaioa eta hazia delarik, ez da baten ez besteren, pertsona nahiz taldeen, izena eta omena goratu beharrean dabilena. Elkarrekin jasoko dugu burua, elkarrekin lehiatzeko bihotza badugu; eta elkarrekin lur joko dugu, elkarrekin amildu ondoan, gure irudia besterengan ezagutzeko gauza ez bagara.

Euskararen lekukoak deritzan bildumarako eskainia digu Altunak Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoa*-ren lehen zatia, 3.814 bertso omen dituen, eta 1627 urtean agertu omen zena. Agertu omen zena diot horrela aipatzen baitugu aho batez, nahiz zinetan eta benetan esku artean darabilguna XVII. mendearen azkenetakoa izan.

Altuna, lehenbizi eta behin, elizgizonen alde agertzen zaigu, liburuari eta egileari dagokienez. Ziburutarra, dakigunez, horietakoa genuen eta, gure arteko gehienak ez bezala, dotore-erramuz koroatua. Eta, izan ere, arrazoi osoa du, gure gaitzen azterketa zorrotz horretan. Elizgizonek ez dute maiteegi izan euskara; besteok izan dugu, zenbait mende zehar, nardatuegi. Laikoen hutsartean, beraz, eta hutsarte horren argira agertzen da betetasun osoan elizgi-

zonen euskal lana, ez ordea berez beteegia zelako. Bat ez da bitan banatzen, zuri eta beltzetan, askotan baizik, ezin konta ahal diren grisen graduetan.

Gertakariak zergatik horrela gertatu ziren ere, erraz uler daiteke. Ez gara arte-lanean, bertso nahiz liburugintzan (eta are bestelakoetan), bihotz-isuri hutsez aritzen, inoiz edo behin izan ezik. Hasi, behar bada, hasiko gara, baina, haziak ernatzeko lur heze-emankorra behar duen bezalaxe, gure joerak eta jaierak ere beharko du izan, irauteko eta lanari jarraitzeko, premiazko duen giroa. Arte-lana, arras bakanka izan ezik, ez da basamortuetan sortzen.

XVI-XVII. mende haietan bazuten elizgizonek, Trento aurretik protestanteek, Trento ondoren guztiz ere katolikoek, euskal lanaren zertarakoa: ez zen hau beren apaiz-lanaren noraezekoa baizik. Besteek, berriz, beste maila beherago batean gelditzen dira. Etxeberriren hitzak erabiliko ditut, *Man.* I, 31:

*Aphez gobernatçailleen eguia duc bilkhua,
Deitcen dugula Eliça batçuetan Saindua,
Parte principalenari guztiaren icena,
Ematen çaiola ceren den señalatuen.*

Hauek ere bazuten beren literatura: kopia zaharrak, bat-bateko bertsoak, ipuinak, esaerak, eta nahi duzuen. Nabarmenena, noski, bertso-lana zuten, bai jaietan eta bai hiletetan. Idaztea falta zitzaien, ordea, gehienetan, elizgizon eta eskribauen eskuetan batez ere zegoen idazkera eta idazten ez dena, dakigunez, maizegi doa hegaz. Dena den, elizgizonek eta letratuak erabat ez bazebiltzan gure artean, Oihenart eta Oihenarteren antzekoren bat salbu, Antzinate urrutiko ereduaren atzetik, nekez aurki zitekeen horrelakorik herri-neurtitzetan.

Elizgizonak ez ezik, Etxeberri bera ere defenditzen du Altunak, idazle zen aldetik. Eta Oihenarteren erasoan kontra defenditzen du hain zuzen, Altunak ederki ezagutzen duen xuberotar hau baitugu bai euskal literaturaren kondairaren oinarriarik sendoenak landatu dituen eta baita ere, berebat, gure kritikak izan duen lehenbiziko giltzarria.

Nik ere ez dut uste, eta bat nator Altunarekin, Etxeberri inolaz ere merezi duenik Oihenartek bizkarraren gainean erabiltzen dion zigorra, Bestetan esana daukat, gainera, honako Oihenarteren hitz hauek hobeki dagozkio-lari Oihenarteri berari Etxeberri baino: "Il est dommage que cet esprit aye mieux aimé s'appliquer à la poésie (pour laquelle il n'avoit point de naturel) qu'à la prose". Oihenartek ez zuen, egia esan, prosazko euskal zatirik, labur baino laburrago ez bada, utzi, baina latinez eta frantsesez eman zituenak ederki darakuste benetan trebea zela hitz lauz edo lainoz, argitasunaren aldetik, batez ere. Neurtitzetan, berriz, hotz agertzen zaigu maizenik, antzinakoek esan ohi zuten edo nahiago baduzue epel. Ez da beste horrenbeste gertatzen, ordea, Etxeberriekin. Pasarte ahulak, hitz-jarioa darienak baditu.

Horien aldamenean, haatik, aurki daitezke, gailurrik garaieten (zenbait erakutsi dizkigu Altunak behatz zorrotzez), Orixek arnasa deitzen zuen haren kutsua, poemagintzan, kristau nahiz jentilengan, egiazko garrez dizekanean, goitar dena, goitik omen datorrena. Ezinezko baitirudi gizakume soila horrela hegaldatzea *éntheos* ez baldin badago. Horrela izendatu zuen Heguy adiskideak, oroituko zarete, Etxeberri bertso-lanera bultzatu zuen garra (*ardor*). Eta pasarte horiek, nik uste, lehen partean aurkitu ohi dira maizago, Altunak aurki eskainiko digunean.

Agertuko denaren esperoan egon gabe, hona non hemen bertan eskaintzen dizkigun Altunak bere lanaren estreinak. Aspaldidanik uste dut *Manual*-ak daramatzan atarikoak ematen digutela argirik aski Etxeberri Ziburukoaren bizitzaz eta eginez. Ederki dio Altunak horiek, latin bertsoetan datozenez ari naiz, ez direla nolanahikoak: direlako distikoak dotore bezain hutsik gabeak direla. Ia hutsik gabeak, behinik-behin, Gipuzkoako Dipatazioko alean. Hordagok argitara duenean (hots, guztion esku artean dabilenean), bat ageri baita, irakurleren batek zuzendua. Heguyren azken neurtitzean hor dakuskezue eskuz erantsia dagoen *oh* hori, makulu hori gabe neurtitza motz gelditzen zelakoan (*diceris*, itxuraz, orainaldikoa baita):

Diceris (oh) patriae gloria prima tuae?
 – U U | – U U | – || – U U | – U U | –

Lapurtar hauen aldean, Larramendi ez zen hurrengo mendean horren kontuz eta taxuz ibiltzen latin neurkeran. Belarrira edo begira eder bazitzaion ongi zegoen neurtitza, latin silaben luze-laburra gora-behera: *et quod tentabam dicere uersus erat*, esan zezakeeen andoaindarrak ere. Hitz batean, eta hitz neurtua izan dadila hemen neurri, ikasiak ziren orduko zenbait lapurtar, ez bat edo bi gero, eta bikainki ikasiak gainera, lehen letren nekea urruti utzia zutelarik. Bazen han, zabal nahiz mehar, *élite* argi bat. Galdatzekoa ere da ea orainago beste horrenbestekorik sortu ote den, Azkoitiko zalduntxoez kanpora, Euskal herriko lurralde guztian. Giputz hauek, gainera, ez ziren lapurtar haiek bezanbat euskararen alde ahalegindu.

Atarikoei eskerrak erakutsi ere digu Altunak bazela Etxeberri arras gogozko ez zutenen samaldaren bat, urriagoa nahiz ugariagoa, inoiz *bekaizkoa gibel-jalearen* atzaparretan eroria. Ikusi dugu Oihenartek ez zuela haren bertsogintza atsegin, hura hil ondoan ere. Hori aski ez balitz, Heguyk eta batez ere Hirigoytik, baita Etxeberrik berak ere, maizegi darabilte ahotan bekaiztien eztena, hori guziori *topos* hutsetan gelditi dadin.

Metrika aldeko kitzikak ez zaizkio, nik uste, gogorregi hartu behar Oihenarteri. Etxeberri, eta beste horrenbeste, ohitura zaharrei atxikiak ageri zaizkigu gai honetan. Oihenartek, berriz (ehunka urtez berandago Arana Goirik egin zuen gisan), bere legeak sartu nahi ditu, nahiz lege horiek atzerrietako bertsogintzan maiz onartuak izan. Berberak aitortzen du, Musekin ari dela:

*Nic suen asturac et' atunac,
Gu baitan oraino es ensunac,
Arguitaratu' tut ilhumbeti,
Et' ateraric herrazeti
Guretu, et' eman hec Euscara
Cobla honsalen escuetara.*

Vulgares versificatores zirelakoan artean eduki behar zuen Etxeberri, baina maxiaketa horrek ez dio honi deus kentzen ez eransten. Aitzitik, badi-rudi Altunak azpimarkatzen duen Heguyren *primus* horrek Etxeberriren berritasuna eta are lehentasuna adierazi nahi duela, Elizakoetan erabiltzen duen bertso-lanari legokionez bederen. Ezin ahaz daiteke Materre-ren bi edizioak *Manual*-arena baino lehenagokoak direla, hau beste maila umilago batean —hitz lauz gainera— ari bazen ere. Badirudi, bestalde, Etxeberri bera ere “primutasun” horren jakile zela, ez baitzituzkeen bestela honako neurtitz hauek bezalakoak idatziko:

*Hasteac gaitçac direla errana duc communqui
Hunen gañean eguiñen dic cembait berçec hobequi.*

Captatio beneuolentia-ri tokatzen zaion partea kendurik ere, badirudi zerbaitetan aitzindari eta aurren-esku ikusten zuela bere burua Ziburutarrak.

Altuna, atarikoetan eta besteetan, gauzarik aski saiatzen da argitzen, eta ez da deus lortzen saiatu gaberik. Nik ere egingo nuke saiotxoren bat edo beste neure aldetik. Pentsa daiteke, eta irudipen gisa azaltzen dut hemen, Hiri-goytiren lehen lerroak (*Nuper eras uiridi redimitus tempora lauro*) eta hor aipatzen den erramu edo ereinotzak ez ote dezakeen adierazi dotoretzaren ohorea (dotoreak, dakidanez, bonetazaleagoak badira ere). Eskaintzaileen hitzetan bada, halere (niri horrela iruditzen zait bederen), arruntzia ez den gogoeta: olerkaritzak, jakiteak, badu bere merezimendua, baina merezimendu hori hutsaran hurrena da Lapurdiko marinelei, itsaso hondargabearen axalean dantza irristakorrean dabilzane, eman dien ibilgailu seguruagoaren aldean. Eta ontzien hobekuntza horretarik ez zuten probetxu itsastariak baka-rrik ateratzen; ateratzen ere zuten lurretik, zertan lehorretik, mugitu gabe irabaziak bil zitzakeen burjesak, merkatariak eta ofizialeak. Horrela delarik, eta Altunaren itzulpenari natzeko, horra non duzuen aitor garbia nola, besteak beste, gizonak lanaren, arriskuaren eta jakitearen podorioz eskura ditzakeen etekinak. Jakitea ez da hor jakite soil, apaingarri eder bezain hutsal: hortaz gainera ere bada, ordutik aurrera ederki ikusi zenez, inguruko mundua menderatzeko gizonak erabil dezakeen lagunik indartsuena.

Bukatu behar eta, hitz bi esango nituzke Axular Etxeberriren parean jartzeko. Ez dut dudarik egiten, lehen esan bezala, honen kantu-lana eder-lana ere badela zatirik egokienetan, eta ez dira horrelakoak eskas. Badirudi, halaz guztiz, badela alde larri *Manual*-aren lehenbizikotik bigarren partera:

hemen, bigarren honetan datoz, egileak berak dioenez (*Guiristiño commun batec*) *errateco lituquen halaber othoitiz guehienac*.

Hemen azaldu nahi nukeen arrazoibidea, laburki baino laburkiago, hau xe litzateke. Axularrek, hitzez-hitz hartzen badugu dioena, ez zuen “liburutto haur, letratu handientcat eguiten. Eta ez choil deus eztaquitenentcat ere”. Horien artean, ordea, *euscariric baicic etciaquitenac* zituen begiz joak. Eta hona ondorioa: Axularrek irakurtzaileentzat idatzi zuen, irakurtzen zekitenentzat (holako egia biribilak ergelkeria badirudi ere), beren ahoz ez bestereenez irakurtzen. Eta irakurtzaile horien artean baziren, bat baino gehiago, erdararik ez zekitenak. Bestalde, eta oro har egingo genuke aski ugari aurkitzen zela horrelako jendea XVII. mendeko Lapurdin, batez ere lurrian bizi ziren laikoen artean. Begien bistan dagoela iruditzen baitzait ez zela Axular lehenbizikoz behintzat beretarrekin ari, otsoak eta otsokiak duten ezinikusi ezagun hargatik, behar bada.



Koldo Mitxelena, Patxi Altuna jaunaren Euskaltzaindian Sartze hitzaldiari erantzunez (Azpeitia, 1981-I-24)

Etxeberri, berriz, bigarren partean batez ere, ez da bertsotan ari (hori dio Oihenartek ere) atseginago zaiolako mintzamolde hori. Berak aitortzen duenez *jakiara* mintzatu da horrela, deliberatuki:

*Hartaracotz iaquiara diat versus eçarri
Lasterrago ikhas eta maizago aipha garri,*

eta aurreraxeago:

*Nola cantac maiz baitire munducoen ahoan,
Hala cantez orhaituric, maiz cituzten gogoan.*

Bestela esan, letrarik ezagutu gabe, irakurtzen jakin gabe, *buruz* ikas ditezke otoitzak, are errazago otoitz horiek bertsutan ezarriak daudenean.

Filologia gora eta filologia behera aritu garenez gero, badirudi, azken lore-xorta gisa, filologizale eta ez hain filologizale direnen arteko eztabaidaz nik ere neure iritzia agertzea. Idazle eta euskaltzain ezagun batek aspaldi ez duela esan digu, Euskaltzaindian, beste Akademietan ez bezala, filologoak ageri direla (garela?) nagusi literaturan, hitz lauz nahiz neurtuz, kreatzaile direnen aldean.

Horrelako gauzak ez dira ongi eta zehazki ez neurtzen ez pisatzen. Esango nuke, hala ere, istilu hori ez dela lehen aldiz (ai, hor sortu balitz!) Euskaltzaindian sortu. Horrelakorik entzuten da Real Academia Española-ri buruz ere eta Frantzian, zakurrak oinhutsik dabiltzanez, lelo hori entzuna dute.

Altunarena, jomuga aldatuz, berrituko nuke hemen. Euskaltzaindian ez da filologo uholderik izango berehalakoan: guttiegi daude, izatekotan ere. Ez dut ere uste kreatzaile gehiegirik erakuts dezakegunik. Euskaltzaindiko eta Euskaltzaindi inguruko guztiok kreatzaile *ala* filologo bagina, gaitz erdi. Zer egin, ordea, horrenbeste kreatzaile *eta* filologo bezala agertzen direlarik? Ez dakit, gainera —nik baietz esango nuke—, ez ote den orain eta ez ote den lehen izan Euskaltzaindiaren inguruan ez kreatzaile eta ez filologo denik ez izan nahi duenik. Ametsak, Homerok zioenez, bi ate ditu; zeruak, berriz, eta Xenpelar hartzen dut lagun, hamabi omen. Hain gauza erabakia ote da Euskaltzaindiaren atarian zabalik dauden ateak bi bakarrik direla?